**GEHIGARRIA URAREN EUSKAL AGENTZIAREN ETA AZTI FUNDAZIOAREN ARTEKO LANKIDETZA-HITZARMENARI. LANKIDETZA-HITZARMEN HORREN XEDEA DA AZTERLAN BAT EGITEA, MUTRIKU INGURUKO KONTSERBA-INDUSTRIEN ISURIAK UDAL HUA-N INTEGRATU AHAL IZANGO LIRATEKEEN JAKITE ALDERA.**

**ADENDA AL CONVENIO DE COLABORACIÓN ENTRE LA AGENCIA VASCA DEL AGUA Y LA FUNDACIÓN AZTI PARA LA REALIZACIÓN DE UN ESTUDIO DE FACTIBILIDAD DE LA INTEGRACIÓN DE LOS VERTIDOS DE LAS CONSERVERAS DE LA ZONA DE MUTRIKU EN LA EDAR MUNICIPAL.**

Gasteizen, 2022ko otsailaren 3an.

En Vitoria-Gasteiz, a 3 de febrero de 2022.

**ELKARTU DIRA:**

Antonio Aiz Salazar jauna, Uraren Euskal Agentziako zuzendari nagusia, eta Rogelio Pozo Carro jauna, AZTI Fundazioko zuzendaria.

**REUNIDOS:**

El Sr. D. Antonio Aiz Salazar, Director General de la Agencia Vasca del Agua y el Sr. D. Rogelio Pozo Carro, Director de la Fundación AZTI.

**ESKU HARTU DUTE:**

Lehenengoak Uraren Euskal Agentziaren zuzendari nagusi gisa eta Agentziaren Estatutuen 7.2.g) artikuluak ematen dion eskuduntzaren arabera.

**INTERVIENEN:**

El primero de ellos en su calidad de Director General de la Agencia Vasca del Agua y en virtud de la atribución que le confiere el artículo 7.2.g) de los Estatutos de la Agencia.

Bigarrenak, AZTI Fundazioaren izenean eta haren ordezkari gisa, Gasteizko notario Alfredo Pérez Ávila jaunaren aurrean 2006ko urtarrilaren 30ean emandako eskrituraren indarrez (protokolo-zenbakia: 360).

El segundo, en nombre y representación de la Fundación AZTI, en virtud de escritura de elevación a público de acuerdos sociales, otorgada ante el Notario de Vitoria-Gasteiz, D. Alfredo Pérez Ávila, el 30 de enero de 2006, con el número 360 de protocolo.

Bi aldeek elkarri aitortu diote legezko gaitasuna dutela Uraren Euskal Agentziak eta AZTI Fundazioak 2020ko azaroaren 9an sinatutako LANKIDETZA-HITZARMENA berrikusteko.

Ambos intervinientes se reconocen mutuamente capacidad legal para revisar el CONVENIO DE COLABORACIÓN firmado el 9 de noviembre de 2020 entre la Agencia Vasca del Agua y la Fundación AZTI, a tal efecto

**ADIERAZTEN DUTE:**

**EXPONEN:**

**LEHENENGOA.-** 2020ko azaroaren 9an, lankidetza-hitzarmena sinatu zen Uraren Euskal Agentziaren eta AZTI Fundazioaren artean, "MUTRIKU INGURUKO HEGALUZE-KONTSERBEN ISURKETAK UDALEKO HUAN INTEGRATZEKO EGINGARRITASUN AZTERKETA" egiteko.

**PRIMERO.-** El 9 de noviembre de 2020 se firmó el convenio de colaboración entre la Agencia Vasca del Agua y la Fundación AZTI para el desarrollo del "ESTUDIO DE FACTIBILIDAD DE LA INTEGRACIÓN DE LOS VERTIDOS DE LAS CONSERVERAS DE BONITO DE LA ZONA DE MUTRIKU EN LA EDAR MUNICIPAL".

**BIGARRENA.-** Azterlana 4 fasetan egitea planteatu zen 2020. eta 2021. urteetan, eta azken urte honetan amaitu behar da.

- 1. fasea: Mutrikuko ingurunearen egoeraren azterketa.

**SEGUNDO.-** El estudio se planteó en 4 fases a lo largo de los años 2020 y 2021, debiendo finalizarse este último año.

- Fase 1: Análisis de situación del entorno de Mutriku.

- 2. fasea: Mutriku aldeko kontserba-jardueraren azterketa.
- 3. fasea: hainbat agertokitan jarduteko proposamena.
- 4. fasea: jarduera-proposamena.

- Fase 2: Estudio de actividad conservera en la zona de Mutriku.
- Fase 3: Propuesta de actuación en los diferentes escenarios.
- Fase 4: Propuesta de actuación.

**HIRUGARRENA.-** Lehen hiru faseak amaitu dira, eta laster ekingo zaio azken faseari, hau da, inplikatutako alderdi guztiekin (Uraren Euskal Agentzia eta Gipuzkoako Ur Kontsortzioa) kontraste-mahai bat antolatzeari, azterlanaren emaitzak azaltzeko eta aztertutako agertoki bakoitzaren argudioak eta/edo eragozpenak azaltzeko. Hori guztia honako helburu hauekin:

- Kontserba-isurketak hiri-saneamenduko sarean integratzeko proposamen bideragarriena adostasunez aukeratzea.
- Kontserbek beren isurketak segurtasunez integratzeko egin beharreko ekintzak zehaztea.
- Isurketa segururako baldintzatzaileak planteatzea.
- Sarean eta/edo HUAn ondorio kaltegarriak saihesteko Ur Partzuergoak egin beharreko ekintzak.

**TERCERO.-** Las tres primeras fases se han completado, y en breve se acometerá la última fase que consiste en organizar una mesa de contraste con todas las partes implicadas (Agencia Vasca del Agua y Consorcio de Aguas de Gipuzkoa), de forma que se expongan los resultados del estudio y se den los argumentos y/o inconvenientes de cada uno de los escenarios estudiados. Todo ello encaminado a:

- Plantear la selección de la propuesta de integración de vertidos de conserveras en la red de saneamiento urbano más viable de forma consensuada.
- Determinar las acciones necesarias a realizar por parte de las conserveras para la integración segura de sus vertidos.
- Plantear los condicionantes para un vertido seguro.
- Las acciones a realizar por el Consorcio de Aguas para evitar efectos adversos en la Red y/o en la EDAR.

**ALDATZEKO KLAUSULA:**

2021eko abenduan burutuko den azken bilera horri buruzko alderdi guztiak prestatzen lan egin denez, baina plangintza eta zehaztasun handiagoa behar duten alderdi batzuk antzeman direnez, bilera arrakastatsua izango dela eta alderdi guztiek konpromisoak sinatuko dituztela ziurtatzeko, ezin da aurreikusitako datan amaitu. Horregatik, lankidetza-hitzarmenaren eranskinean jasotako kronograma aldatzea erabaki da, eta honela geratuko da:

**CLÁUSULA MODIFICATORIA:**

Puesto que durante diciembre de 2021 se ha trabajado en la preparación de todos los aspectos relativos a esta reunión final, pero se han detectado una serie de aspectos que requieren de mayor planificación y detalle para asegurar el éxito de la misma y la firma de compromisos por todas las partes, no es posible finalizar en la fecha prevista. Por ello, se acuerda modificar el cronograma recogido en el Anexo del convenio de colaboración, que queda de la siguiente manera:

| | 2021 | | | | 2022 | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| **JARDUKETA/ACCIÓN** | **1. hiruh Trim 1** | **2. hiruh Trim 2** | **3. hiruh Trim 3** | **4. hiruh Trim 4** | **1. hiruh Trim 1** | **2. hiruh Trim 2** |
| **1. Mutrikuko ingurunearen egoeraren azterketa/Análisis de situación del entorno de Mutriku** | | | | | | |
| **2. Kontserba-jardueraren azterketa - Minimizatzeko aukeren azterketa/Estudio de actividad conservera - Estudio de posibilidades de minimización** | | | | | | |
| **3. Hainbat agertokitan jarduteko proposamenak/Propuestas de actuación en diferentes escenarios** | | | | | | |
| **4. Jarduteko proposamen adostua/Propuesta de actuación consensuada** | | | | | | |

Uraren Euskal Agentziak finantzatuko ditu 2022an egin beharreko jarduerak, AZTIri gehienez hogeita bat mila ehun eta hogei euro (21.120,00 euro) emanez, 2022ko aurrekontu-

La Agencia Vasca del Agua financiará las actuaciones a realizar en 2022 aportando a AZTI la cantidad máxima de veintiún mil ciento veinte euros (21.120,00 euros), con cargo al

ekitaldiaren kargura eta 62991100 kontuari egoztekoa.

ejercicio presupuestario de 2022 e imputable a la cuenta 62991100.

***URAREN EUSKAL AGENTZIAREN ZUZENDARI NAGUSIA* / EL DIRECTOR GENERAL DE LA AGENCIA VASCA DEL AGUA**

**ANTONIO AIZ SALAZAR**

***AZTI FUNDAZIOKO ZUZENDARIA* / EL DIRECTOR DE LA FUNDACIÓN AZTI**

**ROGELIO POZO CARRO**